


EREDUA AZTERTZEN: TESTU ULERMENA

KOHESIO ELEMENTUAK AZTERTU: ANTOLATZAILEAK-1

Ideiekin egin dugu lana, aukeratu, ordenatu eta hierarkizatu (mailakatu) egin ditugu, baina ideia solteak, adreiluak bezalakoak dira.

Adreiluak bezalakoak, bai. Hara, adreilu solteekin ezin da pareta egin, ezta? Ez, noski; pareta egiteko, porlana behar da. Porlanak adreiluak lotzen dituen bezala lotzen dituzte ideiak antolatzaileak. Beraz, oso-oso garrantzitsuak dira; horregatik, tartetxo bat eskainiko diogu horien lanketari.

Hasteko, esango dugu mota askotako antolatzaileak daudela: ideiak gehitzekoak, aipatu diren ideiei garrantzia kentzekoak, denbora-antolatzaileak, adibideak ematekoak, azalpenak ematekoak... Joango gara guztiak ikasten, poliki-poliki.



1. Osa ezazue testua dagokion testu antolatzailea jarriz.

, Unai Goikoleari irratan egindako elkarrizketa entzun dugu. Elkarrizketa Vegetable Orkestrari buruzkoa zen.

, Vegetable Orkestrak zer eratako musika egiten duen kontatu du Unai, orkestra horretako kideek nola antolatzen duten kontzertu-egun bat. , barazkiekin musika-tresnak nola egiten dituzten azaldu du, , azenarioarekin.

, orkestrari buruz informazio gehiago eta argiagoa non eskura daitekeen esan du.

Gaur Ondoren eta Bukatzeko adibidez Hasteko

2. Asmatuko zenukete testu antolatzaile bakoitzak zer funtzio betetzen duen testuan?

Antolatzaileak	Betetzen duten funtzioa
Gaur	
eta	
Bukatzeko	
Adibidez	
Ondoren	

zerbait gehitu	zerbait argitu	azalpena eman
adibidea jarri	denbora-antolatzailea	

3. Jarraian ageri den testuari antolatzaileak kendu dizkiogu eta azpian desordenatuak jarri. Ea bakoitza bere lekuan jartzen lortzen duzuen. Bukatzean, testua irakurri eta ongi geratu den.

Osasuna da gizakiaren ondasunik preziatuenetakoa; , osasuntsu dagoenak ez du ondasun hori askorik estimatzen, baina gaixotasunen bat harrapatuz gero, berehala konturatzen gara osasunaren balioaz.

Gaixo dagoena sendatzea ondo dago, hori bezain garrantzitsua da jendea gaixo jar ez dadin neurriak hartzea.

Zer egin daiteke, , osasuna zaintzeko?

, natura zaindu, kutsa ez dadin; , guk naturatik hartzen ditugu airea eta elikagaiak.

☐ , txiki-txikitatik hasita, osasuna zaintzeko ohiturak erakutsi behar dira familian eta ikastolan.

, osasunari buruzko informazioa izatea oso garrantzitsua da. Osasuna arriskuan noiz jartzen den jakin beharko luke jendeak, ume-umetatik hasita.

Alde batetik Bestetik ordea hala ere Azkenik baina
izan ere